

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Emakumeen indarkeriaren aurkako CHIP-a

- Oso diskretua
- Arropan edo osagarri batean itsatsi
- Tamaina eta formatu desberdinak aukeran
- GPSarekin lokalizatzeko aukera
- Norberaren hatz-markarekin aktibatu

Emakumeen aurkako indarkeria ekiditeko chip-a. Chip diskretu hau norberaren hatz arrastoarekin aktibatu egiten da, eta bulego bateko lankideei zuzenean, eraso gertatzen ari den tokiko helbidea iritsiko zaie, GPS bitartez. Bulegoan egongo diren langile hauek zuzenean 112 zenbakira deituko dute eta eraso gertatzen ari den toki zehatzeko helbidea helaraziko diete, beste hauek zuzenean joan daitezten biktimarengana.

Gipuzkoa mailara mugatuko dugu gure proiektua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itun bat proposatu, eta enpresak kobratuko du pertsona bakoitzeko. Lokaltxo bat alokatu beharko dugu, Donostian, sistema informatikoaren inbertsioa edukitzeko, eta 5 langile beharko ditugu urteko ordu guztiak betetzeko. Chip-aren eta eskaintzen dugun zerbitzuaren inguruan informazio gehiago jakiteko telefono fakturan arrastorik utziko ez duen telefono zenbaki bat eskainiko diegu gure bezeroei.

Gainera, gure zerbitzuaren existentziaren berri emateko, Foru Aldundiak gure enpresaren berri emango du bere webgunean, gure webgunera eramango duen link baten bitartez. Horretaz gainera, Gipuzkoako emakume guztiei beren buzoira zerbitzuaren inguruan publizitatea bidalio die. Azkenik, emakumeen elkarteen bidez ere zabalduko dugu hitza, eta mehatxatuak daudenen kasuan zuzen zuzenean izango dute gure zerbitzuaren berri Ertzaintzaren bidez.